

TOKIKO EKINTZA PLANA

**Antsoaingo Udala
2012-2014**



Garapen iraunkorrerako Udal Plana

Antsoaingo Udala

Aurkibidea

- ESTRATEGIA
- PROZESUA
- HELBURUAK
- ARDATZAK, ESTRATEGIA-ILDOAK ETA PROGRAMAK
- II. TOKIKO EKINTZA PLANAREN KUDEAKETA ETA EBALUAZIOA
- I. ERANSKINA: Antsoaingo I. Tokiko Ekintza Planaren (2008/2010) estrategia-ildoen gauzapen mailaren taula.

ESTRATEGIA

Gure iraunkortasunaren aldeko estrategia bera diseinatzeko erronkari ekiterakoan, ohartu ginen gure inguruan ia beti identifikatzen zela iraunkortasuna ingurumenarekin, kontzeptuak bere baitan biltzen dituen gainerako dimentsioen kaltetan, eta, horrela, iraunkortasuna bertikaltasunez eta sektorez sektore lan egiten zela. Hori ikusita, eta Aalborgeko konpromisoak eskuan hartuta, hasieratik beretik erabaki bat hartu genuen; hots, iraunkortasunaren estrategia ezartzeko udal plana zeharkakotasunez lantzea, plana koherentea izan zedin eta den-dena bere baitan har zezan: udal egiturak, proiektuak, jarduketak eta, horren ondorioz, baita herritarrak ere.

PROZESUA

Lehen fase bat diseinatu eta planifikatu genuen, bai eta hainbat jarduketa ere antolatu, batetik, **Tokiko Ekintza Plana (TEP)** gauzatzeko, epe labur, erdi eta luzean eragina izateko modukoa, eta, bestetik, zutabe sendoak ezartzeko, proiektuak denboraren joanean iraun zezan ziurtatze aldera, etorkizunean udal arduradunak nor izanen ziren alde batera utzita. Jarduketa horiek, estrategikoki, hiru atal handitan sartuta gelditu ziren. Honatx atalak: iraunkortasuna Udalean zeharkakotasunez lantzea, klima-aldaketaren aurka borrokatzea, eta natur baliabideak mantendu eta hobetzea.

Garrantzitsutzat jo da, halaber, II. Tokiko Ekintza Planaren etorkizuneko jarduketa-ildoak hasierako TEPEk berak bi garapen-urteetan izan duen bilakaerara egokitzea.

Plan estrategiko berriak, beraz, jaso, finkatu eta zabaldu egiten ditu hasierako planak bildu eta garatutako hainbat jarduketa. Plan berriaren egitura, hartara, are hobekiago egokitzen da 2008-2010 aldiko I. TEPE buruz egindako ebaluazio-txostenean atzeman eta bildutako beharretara.

Eutsi egin zaio, horrela, Iraunkortasunaren Dekalogoak gauzatu behar dela azpimarratzeari, Udalaren konpromiso politikoa baita, ingurumen, gizarte eta ekonomia arloko irizpideekin bat. Halaber, Tokiko Agenda 21en programa hauek mantendu egin ditugu: Jai Iraunkorrak, Lorezaintza Iraunkorra, Zeharkako

Prestakuntza, Klima Aldaketa, Natur Baliabideak Mantendu eta Hobetzea, Funtsezko datak ospatzea, Hezkuntza Proiektua, Berdintasun Plana eta Hiri-Kanpamentu Iraunkorrak.

Jardunbide on hori, era berean, orain arte zuzenean landu ez ditugun udal alorretara zabaldu dugu; zeharka bai landu izan ditugu, baina jarduketa zehatz batzuen bidez. Ikusteko eta egiteko molde berri hori, beraz, beste alor batzuetara zabaldu dugu; gazteria eta kultura alorrera, bereziki.

Bi proiektu berri abiarazi dira, gainera: Bateragarritasunaren Aldeko Toki Ituna eta Emakumeekiko indarkeriaren aurkako toki-ekintzako I. Protokoloa. Bi proiektuok berez irizpide iraunkorrei erantzuteaz gain, funtsezko lanabesa ere izan nahi dute praktikan tokiko garapen iraunkorra lantzeko. Bietan ere, zati bat udal entitateari berari dagokio, eta beste bat, Antsoaingo herritarrei.

Tokiko Ekintza Plana ezartzeko oinarritzko egiturei dagokienez, funtsezkoa da TEPeren bultzada eta ezarpena gidatu behar dituzten zerbitzuak errotzea; Tokiko Agenda 21 bera eta Berdintasun Zerbitzua, esaterako.

Oso interesgarria da Tokiko Garapen Eragilea deritzon figura txertatzea, proiektuak bultzatu, finkatu, kalitatez hornitu eta hobetzeko. Antsoaingo Udalak ezarria du, gaur egun, holako figura. Era berean, oso interesgarria da orain arte jorratutako lan-moldeari jarraipena ematea; lan-molde horrek udalaren beste alor eta zerbitzu batzuk txertatzen ditu, gauzatu diren jarduketan beharrekin bat.

Oso garrantzitsua da, halaber, halako esparru arautu bat izatea, herritarren engeiamendua hobetzeko eta, horren ondorioz, herritarrek udalaren proiektuetan hobeki parte-hartzea lortzeko. Esparrua, zehazki, Iraunkortasunaren Foro gisako bat izan liteke, edo bestela, Iraunkortasunaren Kontseilu bat. Gaur egun, teknologia berriek eskaintzen dituzten aukerak erabili eta baliatzea da jendearen parte-hartzea sustatzeko beste modu bat.

Atal honi bukaera emateko, oso interesgarria eta ezinbestekoa iritzi diogu Tokiko Agendak 21ek Nels Sarean parte hartzen jarraitzeari, bai eta Iraunkortasunaren beste Foro batzuetan ere, iraunkortasunaren inguruko esperientziak eta jardunbide onak partekatze aldera eta, horrekin bat, Tokiko Agenda 21en lana aberaste aldera.

HELBURUAK

- Udalaren proiektu eta jarduketa guztietan, ingurumen, gizarte eta etika arloko irizpideak zeharkakotasunez txertatzea.
- Herritarrak sentsibilizatu eta engaiatzea, garapen iraunkorrerantz aurrera jotzeko.

ESTRATEGIA-ILDOAK ETA PROGRAMAK

1. ARDATZA. ANTSOAINGO HERRITARRAK PARTE-HARTZAILEAK, BARNERAKOIAK, SOLIDARIOAK, OSASUNGARRIAK ETA ZUZENAK IZAN DAITEZEN SUSTATZEA.

1.1. ESTRATEGIA-ILDOA. EKIPAMENDU ETA ZUZKIDURA PUBLIKOEN GAITASUNA, KUDEAKETA MAILA ETA JARDUERA IRIZPIDE IRAUNKORRETARA EGOKITZEA.

1.1.1 IRAUNKORTASUNEAN PRESTATZEA

HELBURUAK:

- Udalaren plantillako alorretako arduradunek iraunkortasunari buruzko gaietan oinarrizko ezagutzak eskuratzea.
- Udalaren eta Entitate laguntzaileen plantillak lanabesez hornitzea, iraunkortasuna haien proiektu eta jarduketa guztietan zeharkakotasunez sartzeko.

HELMUGAK:

- Udal Zerbitzuetako arduradunen % 50ek oinarrizko ezagutza horiek eskura ditzaten lortzea, bakoitzak bere lan arloetan gainerako kideen artean ezar ditzan.
- Urtean 10 orduko prestakuntza egitea udal alor guztientzako.

EPEAK: 2012-2014

ADIERAZLEAK: parte-hartzaileak, sexuaren arabera banatuta; prestakuntzaren denborari, edukiei, metodologiari, baliabideei eta bete diren helburuei buruzko gogobetetze maila; lorpenak, zailtasunak eta hobekuntza-proposamenak.

LANDUTAKO AALBORG HELBURUAK: 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9 eta 10.

1.1.2 PLEGUAK KONTRATAZIO PUBLIKO IRAUNKORRA

HELBURUAK:

- Iraunkortasuna udal jarduketan gauzatzea, Udalak iraunkortasunarekin hartua duen konpromisoa betetzearen eta, era berean, beste erakunde batzuentzako eta, oro har, herritarrentzako eredu izatearren.

HELMUGAK:

- Udalaren kontratazio-plegu guztien % 70ek irizpide iraunkorrak txertatzen jarrai dezatela lortzea.

EPEAK: 2012-2014

ADIERAZLEAK: Zenbat plegu berrikusi eta egokitu diren irizpide iraunkorretara.

LANDUTAKO AALBORG HELBURUAK: 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8 eta 9.

1.1.3 IRIZPIDE IRAUNKORREN PROTOKOLOA ENTITATE ETA UDAL ALOR GUZTIENTZAKO

HELBURUAK:

- Iraunkortasuna udal jarduketan gauzatzea, Udalak iraunkortasunarekin hartua duen konpromisoa betetzearen eta, era berean, beste erakunde batzuentzako eta, oro har, herritarrentzako eredu izatearren.

HELMUGAK:

- Irizpide iraunkorren protokolo bat ezarri eta sinatzea udalaren alorretarako.
- Udalaren alor guztien % 50ek irizpideen % 20, gutxienez ere beren proiektu edo jarduketa batean txerta ditzaten lortzea.
- Hiru entitateek Antsoain iraunkorra ezaugarria lor ditzatela lortzea, konpromisoa hartu izana aitortzeko.

EPEAK: 2012-2014

ADIERAZLEAK: irizpideak zenbat alorrek, proiektuk edo jarduketak txertatu dituzten, eta zenbat irizpide txertatu diren.

LANDUTAKO AALBORG HELBURUAK: 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9 eta 10.

1.1.4 IRIZPIDE IRAUNKORRAK UDALAREN DIRU-LAGUNTZETAN ETA LEHIAKETETAN

HELBURUAK:

- Iraunkortasuna udal jarduketan gauzatzea, Udalak iraunkortasunarekin hartua duen konpromisoa betetzearen eta, era berean, beste erakunde batzuentzako eta, oro har, herritarrentzako eredu izatearren.

HELMUGAK:

- Diru-laguntzetarako eta lehiaketetarako irizpideen % 100ek derrigorrez bete behar diren oinarrizko irizpideak txerta ditzaten lortzea.

EPEAK: 2012-2014

ADIERAZLEAK: irizpideak zenbat alorrek, proiektuk edo jarduketak txertatu dituzten, eta zenbat irizpide txertatu diren.

LANDUTAKO AALBORG HELBURUAK: 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8 eta 9.

1.1.5 JAI IRAUNKORRAK

HELBURUAK:

- Jaien udal kanpaina iraunkortasuna zeharkakotasunez txertatzea, udal zerbitzuek antolatzen dituzten ekitaldien bitartez.
- Iraunkortasun kontzeptua zabaldu eta agerraraztea.
- Herritarrak sentibilizatu eta engaiatzea, aurrera jotzeko eta jai iraunkorrakoak lortzeko.
- Emakumeek eta gizonek herriko jaietan antolatutako ekitaldietan eta, oro har, arlo guztietan, orekatasunez parte har dezaten sustatzea: ekonomian, gizartean, kulturean, kirolean... hala esparru publikoan nola pribatuan.
- Jarduketa-ildo berriak proposatzea etorkizuneko ekitaldietarako eta jaien inguruko hurrengo kanpainarako.

HELMUGAK:

- irizpide iraunkorrak urteroko jaien egitarauaren 8 ekitalditan txertaturik egotea.
- urtean bi koordinazio-bilera egitea jaiekin zerikusia duten udal alor guztien artean; bata, jaien aurretik, eta bestea, ondotik, ebaluazioa egiteko.
- urtean behin Jai Batzordearekin bilera bat egitea.
- hondakinak bereizteko 16 gune jartzea.
- jaietako 5 ekitalditan hondakinak bereizteko edukiontziak jartzea.
- 4.000 jai-egitarau egitea etxe banatzeko, berdintasunaren aldeko 50 kartel, iraunkortasuna jaietan bultzatzeko aldeko 50 kartel, 2.000 opari iraunkortasunean oinarritutako berdintasunaren alde.
- iraunkortasuna txertatua duten egitarauaren emanaldietan guztira 1.000tik gora lagunek parte hartzea. Parte-hartze horretan genero-parekotasuna txertatzea, % 40tik % 60ra.

EPEAK: 2012-2014

ADIERAZLEAK: zenbat material erabili diren jaietako irizpide iraunkorrak zer ekitalditan txertatu diren zabaltzeko; zenbat koordinazio bilera; zenbat bilera Batzordearekin; zenbat lagunek parte hartu duten; esku hartu diren jarduketan gaineko gogobetetze galdetegia; enpresa laguntzaileentzako galdetegia; hondakinak ekitaldi aukeratueta neurtzea.

LANDUTAKO AALBORG HELBURUAK: 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9 eta 10.

1.1.6 IRAUNKORTASUNAREN ALDEKO KANPAINAK, ETA OSPAKIZUNAK

HELBURUAK:

- Antsoaingo biztanleria iraunkortasunean sentibilizatzea, jai esanguratsuak baliaituta; adibidez, martxoaren 8a, azaroaren 25a, jardunaldi iraunkorra, Europako hondakinen astea, kontsumo arduratsuaren aldeko kanpaina.

HELMUGAK:

- Irizpide iraunkorrak beste alor batzuetako 2 udal ospakizunetan eta udaletik kanpoko 2 Entitatetan sartzea.
- Guztira, 500etik gora lagunek parte hartzea iraunkortasuna barne hartzen duten jarduketetan.
- Berdintasunaren aldeko ospakizunetan gizonak % 10 izatea.
- Urtean, iraunkortasunari lotutako jardunaldi 1 egitea.

EPEAK: 2012-2014.

ADIERAZLEAK: AL21ek zenbat ospakizun egin dituen; beste alor batzuek eta Entitateek zenbat ospakizun egin dituzten; zenbat jendek parte hartu duen, sexuaren arabera banatuta; kanpainetan zer-nolako materialak erabili diren (zenbat eta mota); gastronomia-ekitaldietan eta otamenetan zer irizpide iraunkor txertatu diren (zenbat eta mota).

LANDUTAKO AALBORG HELBURUAK: 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9 eta 10.

1.1.7 JARDUNBIDE ONAK

HELBURUAK:

- Udalak iraunkortasunarekin duen konpromisoa Antsoaingo herritarren artean agerraraztea.
- Antsoaingo herritarrak iraunkortasunean sentsibilizatzea.
- Tokiko garapen iraunkorrari buruz hausnartzea, ingurumen, gizarte eta ekonomia arloko irizpideak oinarri hartuta; Nafarroan arlo horretan lanean ari garen Entitateen artean jardunbide onak partekatzea eta lankidetzat sustatzea.

HELMUGAK:

- Urtean, jardunbide on 1 garatzea beste entitate batzuei eta udalaren beste proiektu batzuei erakusteko.

EPEAK: 2012-2014

ADIERAZLEAK: zenbat lagunek parte hartu duten, sexuaren arabera banatuta; prestakuntzaren denborari, edukiei, metodologiari, baliabideei eta bete diren helburuei buruzko gogobetetze maila; lorpenak, zailtasunak eta hobekuntza-proposamenak, hedapen-materialak.

LANDUTAKO AALBORG HELBURUAK: 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9 eta 10.

1.1.8 IRAUNKORTASUNERANZKO HEZKUNTZA PROIEKTUA

HELBURUAK:

- Eskola-erkidegoan jarreraren aldaketa sustatzea, sentsibilizazioa erabilita eta garapen iraunkorrarekiko hasierako eta etengabeko prestakuntzaren bidez.
- Informazioa herritik kanpoko ikastetxeetan ari diren haurrei helaraztea lortzea.

HELMUGAK:

- Iraunkortasunarekin lotutako 4 jarduera herriko ikastetxeetako hezkuntza-proiektuan txertaturik egotea lortzea, funtsezko lau dataren bidez: martxoak 8, iraunkortasunaren eguna, azaroak 25 eta hondakinen astea.
- Antsoaindik kanpoko ikastetxeetan ari diren haurrei lau informazio-orri bidaltzea.

EPEAK: 2012-2014

ADIERAZLEAK: zenbat lagunek parte hartu duten, sexuaren eta adinaren arabera banatuta; zenbat ikasmaita engaiatu diren; Ikastetxearekin zenbat bilera egin diren; zenbat informazio-orri egin diren.

LANDUTAKO AALBORG HELBURUAK: 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9 eta 10.

1.1.9 ESPARRU IRAUNKORRA UDAL LIBURUTEGIAN

HELBURUAK:

- Liburutegia erabiltzen duen jendea sentsibilizatzea, gai honi buruzko dokumentazioa duen esparru bat moldatuta.
- Antsoaingo herritarrei iraunkortasunaren inguruko informazioa udal liburutegian ematea.

HELMUGAK:

- Berariazko esparru bat molda dadin lortzea.
- Iraunkortasunarekin lotuta dauden 10 dokumentu izatea lortzea.

EPEAK: 2012-2014

ADIERAZLEAK: zenbat lagunek parte hartu duten, sexuaren eta adinaren arabera banatuta; zenbat dokumentu, irizpideen arabera; zenbat dokumentu kontsultatu diren.

LANDUTAKO AALBORG HELBURUAK: 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9 eta 10.

1.1.10 PROIEKTU KOMUNITARIOA OSASUN ETXEAREKIN BATERA

HELBURUAK:

- Antsoaingo herritarren osasuna irizpide iraunkorrekin bat sustatzea.
- Osasun Etxeari aholkularitza ematea eta harekin lankidetzan aritzea, haren proiektu komunitarioan

HELMUGAK:

- Garatu beharreko jardueran ingurumen arloko, gizarte arloko eta ekonomia arloko irizpide bana txertatzea.
- Gutxienez ere, udalaren 5 zerbitzuz eta entitatek proiektua ezagut dezatela lortzea.

EPEAK: 2012-2014

ADIERAZLEAK: zenbat lagunek parte hartu duten, sexuaren eta adinaren arabera banatuta; Osasun Etxearekin zenbat bilera egin diren.

LANDUTAKO AALBORG HELBURUAK: 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9 eta 10.

1.1.11 TOKIKO KULTUR ONDAREAREN PROIEKTUA

HELBURUAK:

- Bertako kultur ondarea ezagutzera ematea.
- Lan egitea, kulturen arteko jendarterantz aurrera jotzeko.
- Jendeak euskaraz mintzatzen ikas dezan sustatzea, gure herriko kultur ondarea baita.

HELMUGAK:

- Euskarazko bost toki-izen berreskuratzea.
- Toki-izenak mendiko bidean jarriko den panel baten bidez zabaltzea.
- Euskarazko hiru prestakuntza taldeak udal euskaltegian mantentzea.
- Topaketa kulturantz bat egitea.

EPEAK: 2012-2014

ADIERAZLEAK: zenbat lagunek parte hartu duten, sexuaren eta adinaren arabera banatuta; Osasun Etxearekin zenbat bilera egin diren.

II. TEP

agendalocal21@ansoain.es

948 38 40 48

LANDUTAKO AALBORG HELBURUAK: 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9 eta 10.

1.1.12 AUKERA BERDINTASUNERAKO PLANA

HELBURUA:

- Aukera berdintasuna udalaren politika publiko guztietan irizpide sozial iraunkor gisa txertatzea.

HELMUGAK:

- Urtean 3 proiektu garatu eta gauzatzea Plana ezartzeko.
- 2014a baino lehen, Planaren ekintzen % 12 gauzatzea.

EPEAK: 2012-2014

ADIERAZLEAK: jarduera; planaren alorrak; zer bitarteko tekniko, material eta giza baliabide erabili diren; aurrekontua; parte-hartzaileak; gogobetetze-galdetegiak; proiektuan zer irizpide iraunkor txertatu diren; proiektuaren bateragarritasun beharrak,...

LANDUTAKO AALBORG HELBURUAK: 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9 eta 10.

1.1.13 EMAKUMEEKIKO INDARKERIAREN AURKAKO TOKI-EKINTZAKO PROTOKOLOA

HELBURUAK:

- Arlo honetan erakundeen arteko koordinazioa hobetzea eta erkidego osoan jarduketa-jarraibide bateratuak ezartzea, biktimei laguntza hobea emateko.

- Arlo guztietan emakumeeikiko indarkeriari aurrea hartzea.

- Antsoaingo herritarrak Antsoain indarkeria matxistarik gabe iraunkortasunez garatu beharraz sentsibilizatzea.

HELMUGAK:

- berdintasunerako aurrekontuaren % 25 indarkeriaren gaineko protokoloa ezartzera bideratzea.

- 4.000 orri-biko egitea, Antsoaingo jendeari informazioa emateko.

- protokoloan parte hartzen duten entitateak 2 aldiz koordinatzea.

EPEAK: 2012-2014

ADIERAZLEAK: Protokoloa lantzen parte hartu duten Alorrak, Entitateak eta jendea. Protokoloa ezartzera bideratu diren aurrekontuak, giza baliabideak nahiz baliabide materialak. Protokoloa zabaltzeko materialak (motak, kopurua, esparruak). Protokoloa koordinatzeko bilera kopurua.

LANDUTAKO AALBORG HELBURUAK: 1, 2, 3, 6, 8, 9.

1.1.14 BATERAGARRITASUNAREN ALDEKO ITUNAK

HELBURUAK:

- Behar diren formulak praktikan jartzea eta baliabideak bideratzea familia, lana eta norberaren bizitza bateragarri egiteko, ildo hauetan nagusiki: neurri eta zerbitzu gehiago eta hobeak sustatzea, lana antolatzeke modu berriak sustatzea eta pentsaera-aldaketa bultzatzea.

HELMUGAK:

- Bateragarritasunaren aldeko Itun dokumentu 1 Udalaren, Entitateen eta Gizarte Eragileen artean garatu eta sinatzea, garapen iraunkorraren ingurumen, gizarte eta ekonomia arloko irizpideak txertatuta.
- Antsoaingo taldeen eta entitateen % 20 ituna lantzeko prozesuan eta sinaduran engeiatzea.
- Antsoaingo udal alorren % 50 ituna lantzeko prozesuan eta sinaduran engeiatzea.

EPEAK: 2012-2014.

ADIERAZLEAK: Berdintasun Plana ebaluatzeko, aipatu dugun fitxa erabiliko da.

LANDUTAKO AALBORG HELBURUAK: 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8 eta 9.

1.1.15 HIRI-KANPAMENTU IRAUNKORRAK

HELBURUAK:

- Behar diren neurriak eta zerbitzuak garatzea, gizonek eta emakumeek lana, familia eta norberaren bizitza bateragarri egiteko dituzten zailtasunak ahalik eta gehien kentze aldera, irizpide iraunkorrak txertatuta.
- Pertsonetikiko eta gure ingurunearekiko zainketaren etika eta erantzunkidetasuna Antsoaingo herritarren artean sustatzea.

HELMUGAK:

- Urtean, 3 hiri-kanpamentu iraunkor finkatzea (Aste Santua, Uda eta Eguberriak).
- Udako hiri-kanpamentuak abuztuan astebetetz luzatzea.
- Hiru bide erabiltzea hiri-kanpamentuak zabaltzeko (ikastetxeak, kalea eta udalaren weba).

EPEAK: 2012-2014.

ADIERAZLEAK: haur parte-hartzaileak, zenbat informazio-orri banatu diren, gogobetetze-galdetegia.

LANDUTAKO AALBORG HELBURUAK: 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9 eta 10.

1.2 ESTRATEGIA-ILDOA. HERRITARREK ZERBITZU PUBLIKOEN KUDEAKETAN PARTE HAR DEZATELA SUSTATZEA

1.2.1 TOKIKO AGENDA 21 FINKATU ETA GARATZEA

HELBURUAK:

- AL21 Antsoaingo herritarren artean agerraraztea.
- AL21eko taldea handitzea.
- Lanabes eraginkor bat izatea udalak iraunkortasunarekin hartua duen konpromisoa gauzatzeko.
- TEPeren proiektuei buruzko informazioa Udal barruan eta kanpoan (herritarrei begira) ematea.

HELMUGAK:

- Iraunkortasuneko taldearen zerbitzuen 3 errotulazio AL21en egoitzan jartzea.
- Udalaren web barruan, berariazko esparru bat garatzea proiektu iraunkorrei eskaintzeko; beste esparru bat, oholetan, bai eta blog bat edo Facebook ere.
- Tokiko Garapen Eragilea lan-taldean txertatzea.
- 10 jarduketa iraunkorretan parte hartzea; bat, Aalborgeko konpromiso bakoitzeko.
- Urtean, 3 buletin digital bidaltzea, Antsoaingo garapen iraunkorren interesatuak dauden alor, entitate eta herritar guztiei.
- 4 prentsa-ohar egitea eta komunikabideetara igortzea.
- Prentsaurreko bat deitzea.

EPEAK: 2012-2014

ADIERAZLEAK: Zenbat bitarteko erabili diren; zenbat material inprimatu diren; zenbat unitate egin diren; zenbat prentsaurreko; zenbat bilera, eta zenbat bilera gidatu diren; zenbat buletin bidali diren; zenbat dokumentu bidali diren webera; zenbat kontsulta jaso diren; zenbat proiektu bultzatu diren; zenbat, seinaleztapen; zenbat eta zer proiektutan parte hartu den.

LANDUTAKO AALBORG HELBURUAK: 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9 eta 10.

1.2.2 UDAL EGITURA PARTE-HARTZAILE BAT SORTZEA EDO/ETA FINKATZEA: FOROA EDO KONTSEILUA

HELBURUA:

- Jendeak parte hartzeko esparru bat izatea, Antsoaingo Udalaren politika iraunkorrak diseinatzeko eta ezartzeko.

HELMUGAK:

- Jendeak parte hartzeko foro 1 egitea behintzat, eta gutxienez ere, deia jaso duten pertsonen % 10 bertaratzea.
- Foroak onesten duen proiektu bat egitea.

EPEAK: 2012-2014

ADIERAZLEAK: zenbat bilera egin diren, zenbat proiektu.

LANDUTAKO AALBORG HELBURUAK: 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9 y 10.

1.2.3 NELS SAREAN, NAFARROAKO IRAUNKORTASUNAREN FOROAN ETA BESTELAKOETAN PARTE HARTZEA

HELBURUAK:

- Beste AL21, entitate, talde eta elkarte batzuekin gai iraunkorrei buruzko esperientziak partekatzea.
- Sare sozialak sor daitezen sustatzea, iraunkortasunak gure jendartean aurrera egiten laguntzeko.

HELMUGAK:

- Nels Sarearen bi bileretara joatea.
- Iraunkortasunaren Foroaren bilera batera joatea.
- Nafarroako Berdintasunerako Institutuarekin bilera bat egitea, genero-ikuspegia txertatu duen Antsoaingo TEP azaltzeko.
- Antsoaingo AL21ek duen esperientzia sare horietako bi ekitalditan partekatzea.

EPEAK: 2012-2014

ADIERAZLEAK: zenbat bilera egin diren, zenbat proiektu partekatu diren.

LANDUTAKO AALBORG HELBURUAK: 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9 eta 10.

2. ARDATZA. INGURUMENAREN ETA HAREN BALIABIDEEN ZAINKETAN ETA KLIMA-ALDAKETAREN AURKAKO BORROKAN DUGUN TOKIKO ETA ARLO GLOBALEKO ERANTZUKIZUNA SUSTATZEA

2.1. ESTRATEGIA-ILDOA. KALITATEZKO ETA IRAUNKORTASUNEZKO EREDU BAT SUSTATZEA, BAI ETA UDAL JARDUERAREKIN LOTUTA DAUDEN JARDUERA ETA PROIEKTU GUZTIETAN ERE.

2.1.1 LOREZAINZTA IRAUNKORRA

HELBURUAK:

- Udal lorezaintza irizpide iraunkorrekina bat garatzea.

HELMUGAK:

- Produktu fitosanitario toxikorik batere ez erabiltzea.
- 200 kg ongarri kimiko gutxiago erabiltzea.
- Gutxienez ere, soropil-azalera 180 m² murriztea.
- Irizpide iraunkorrak erabiltzea gutxienez ere bi lorategi diseinatzerakoan eta egiterakoan.
- Ur-kontsumoa % 3 murriztea.
- % 30 bertako espezieak izatea.
- Emakumezko 1 kontratatzea udako lorezaintza-kanpainan aritzeko.
- Lorezaintza iraunkorren sentsibilizazio-kanpaina 1 egitea.
- Urtean bilera 1 egitea, beste udal batzuetako lorezaintza-zerbitzuekin irizpide iraunkorrak bateratzeko.
- Lorezaintza iraunkorren jardunbide on 1 egitea.
- EZKABA IPko hezkuntza-proiektuarekin lankidetzan aritzea; jarduera batean, gutxienez ere.
- Gutxienez ere, lan-jantziaren funtsezko hiru arropak (kamisetak, galtzek eta oinetakoek) jatorri "garbia" izatea: hau da, fabrikatzaileak jende adingabea ez erabiltzea eta langileen hitzarmena errespetatzea.

EPEAK: 2012-2014

ADIERAZLEAK: erabili diren produktu toxikoen %; aurreztu den uraren %, aurreko urtearekin alderatuta; soropila zenbat m²-tan murriztu den; zenbat lorategi egin edo moldatu diren, irizpide iraunkorrekina bat; lorezaintza-zerbitzuan zenbat emakumezko kontratatu diren; zenbat bilera egin diren lorezaintza iraunkorren diharduten beste udal zerbitzu batzuekin; lorategietan erabili diren bertako espezieen %; zenbat lankidetzan lan egin diren ikastetxearekin; lanerako arropa eta oinetakoen ziurtagiriak.

LANDUTAKO AALBORG HELBURUAK: 2, 3, 4, 5, 6, 7 eta 9.

2.1.2 ENERGIA ERAGINKORTASUNEZ ERABILTZEA:

HELBURUAK:

- Udalaren instalazio eta zerbitzu guztietan energia eraginkortasun handiagoz kontsumitzea.
- Udalaren instalazioetan energia gutxiago kontsumitzea.
- Udalaren proiektu guztietan energia eraginkortasunez kontsumitzeko irizpideak txertatzea.

HELMUGAK:

- energia-kosteak % 5etik gora ez handitzea.

EPEAK: 2012-2014

ADIERAZLEAK: Urteko energia-kostea.

LANDUTAKO AALBORG HELBURUAK: 2, 3, 4, 6, 7, 8 eta 10.

2.2. ESTRATEGIA-ILDOA. HIRI-MUGIKORTASUNERAKO EREDU IRAUNKORRA GARATZEA.

2.2.1 GARRAIOBIDE ALTERNATIBOAK SUSTATZEA

HELBURUAK:

- Sentsibilizazio-kanpaina bat egitea mugikortasun iraunkorra sustatzeko.

HELMUGAK:

- Informazioa emateko 220 orri-biko argitaratzea bidegorria bultzatzeko.
- Sentsibilizazio-jardunaldi bat egitea bizikletaz joatea sustatzeko.

EPEAK: 2012-2014

ADIERAZLEAK: AL21ek zenbat ospakizun egin dituen; beste alor eta Entitate batzuek zenbat ospakizun egin dituzten; zenbat lagunek parte hartu duten, sexuaren arabera banatuta; zer hedapen-material erabili diren (zenbat eta mota); zer-nolako irizpide iraunkorrak txertatu diren gastronomia-ekitaldietan, otamenean (zenbat eta mota).

LANDUTAKO AALBORG HELBURUAK: 5 eta 6

2.3 ESTRATEGIA-ILDOA. EZKABA MENDIKO NATUR BALIOAK GARATZEA ETA SENDOTZEA

2.3.1 EZKABA MENDIKO BETIKO BIDEAK LEHENGORATZEA ETA MANTENTZEA

HELBURUAK:

- Lehengoratutako bideak eta inguruak mantentzea.
- Antsoaingo herritarrek mendia erabili eta goza dezaten sustatzea (emakumei harrera berezia eginen zaie, genero arloko zailtasunak baitituzte era horretako proiektuetan parte hartzeko eta proiektuak egiazki gozatzeko).
- Proiektu hau genero-ikuspegia garapen iraunkorreko proiektuetan txertatzearen eredu bihurtzea.
- Bideak Ezkaba mendiko natur, historia eta kultur ondarea zabaltzeko bitartekoak izatea.
- Ezkaba mendiko Udalez gaindiko Proiektu Sektorialean parte hartzea.

HELMUGAK:

- Artikako bidearen 400 m lehengoratzea.
- Gogoeta-talde 1 egitea, emakumezkoen osatutakoa, mendia erabiltzerakoan zer premia dituzten ikusteko eta eskariei harrera egiteko.
- Jendea sentsibilizatzeko herri-jardunaldi bat egitea.
- Ikasleak sentsibilizatzeko eskola-saio bat.
- Udalez gaindiko Proiektu Sektorialaren bi saioetara joatea.

II. TEP

agendalocal21@ansoain.es

948 38 40 48

EPEAK: 2012-2014

ADIERAZLEAK: zenbat metro lehengoratu diren; zenbat parte-hartzaile; zenbat bilera.

LANDUTAKO AALBORG HELBURUAK: 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9 eta 10.

2.3.2 LURRALDEA ZAINTZA

HELBURUAK:

- Lurraldearen jabeak eta erabiltzaileak Ezkaba mendiko natur, kultur eta paisaia arloko baliabideen zainketan eta erabilera onean engaiatzea.

- Jabeen eta zaintze-entitateen eta bestelako eragile publikoen eta pribatuen artean, lankidetzarako akordioak eta mekanismoak sustatzea.

HELMUGAK:

- Mendiko bi lurzati zaintzapeko lurraldea izan daitezela lortzea.

EPEAK: 2012-2014

ADIERAZLEAK: zaintzapeko zenbat metro eta/edo lurzati; pertsona eta entitate parte-hartzaileak; zenbat bilera; dokumentu hitzartuak eta sinatuak.

LANDUTAKO AALBORG HELBURUAK: 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9 eta 10.

2. ARDATZA. GARAPEN IRAUNKORRA BULTZATUKO DUEN EKONOMIA BIZIA SUSTATZEA

3.1 ESTRATEGIA-ILDOA. KONTSUMO ARDURATSUA SUSTATZEA

3.1.1 BIDEZKO MERKATARITZAKO PRODUKTUAK KONTSUMITZEA

HELBURUAK:

- Udalean, Entitateetan eta herritarren artean, bidezko merkataritzako produktuen kontsumoa bultzatzea.
- Bidezko merkataritza-hiria deitura hartzeko prozesua abiaraztea.

HELMUGAK:

- Udalaren 10 ekitalditan bidezko merkataritzako produktuak erabil daitezela lortzea.
- Bidezko merkataritzako produktuak kontsumitzearen aldeko kanpaina bat antolatzea.
- Bidezko merkataritza barne hartuko duen ekonomia solidarioaren aldeko ebazpen bat onestea, eta udalak era horretako produktuak kontsumitzea.
- Ikastetxean prestakuntza eta josteta saio bat egitea, gazteak gaian sentsibilizatzeko eta hartzen duten konpromisoaren ezaugarri bat helarazteko.

EPEAK: 2012-2014

ADIERAZLEAK: Zenbat ekitalditan dauden bidezko merkataritzako produktuak; zenbat kanpaina egin diren bidezko merkataritzako produktuak sustatzeko; zenbat saio egin diren bidezko merkataritza udal ikastetxean sustatzeko.

LANDUTAKO AALBORG HELBURUAK: 1,2,4,8, 9

3.1.2 EGUBERRIETAKO KANPAINA

HELBURUAK:

- Gutako bakoitzaren kontsumo-ekintzek ingurumenean, ekonomian eta jendartearen zer eragin duten herritarrei ikustaraztea.

HELMUGAK:

- Kontsumo arduratsuari buruzko 4.000 orri-biko egitea, informazioa emateko.

- Herritarrentzako ekitaldia: adibidez, "Urrezko 3 arauen Kanpaina" bat antolatzea eta kontsumo arduratsuari buruzko eztabaida-saio bat.
- Kontsumo arduratsuari buruzko 20 Gida banatzea.
- Kultur programazioan, "Erosi, bota, erosi" dokumentala sartzea.

EPEAK: 2012-2014

ADIERAZLEAK: Zenbat orri-biko; Kontsumo Arduratsuari buruzko zenbat Gida banatu diren; zenbat aldiz eman den "Erosi, bota, erosi" dokumentala; zenbat lagunek parte hartu duten eztabaida-saioan, sexuaren arabera banatuta.

LANDUTAKO AALBORG HELBURUAK: 1, 2, 3, 4, 8, 9 eta 10.

3.1.3 TOKIKO MERKATARITZA

HELBURUAK:

- Hurbileko produktuen kontsumoa bultzatzea, eta herri-ekimenei behar bezalako sostengu instituzionala ematea.
- Udalerrian elkartegintza sustatzea eta merkataritza-elkarte bat sortzen laguntzea.

HELMUGAK:

- Antsoainen osatuko den Merkataritza Elkartearen 2 bileretan gutxienez parte hartzea.
- Antsoaingo Udalaren lankidetzak akordio idatzi baten bidez zehaztea.

EPEAK: 2012-2014

ADIERAZLEAK: Antsoaingo Merkataritza Elkartearen zenbat bileretan parte hartu den; zenbat lankidetzak dokumentu Antsoaingo Udalaren eta Antsoainen osatuko den Merkataritza Elkartearen artean.

LANDUTAKO AALBORG HELBURUAK: 1, 3, 4, 8, 10.

P3.2. PROGRAMA. TOKIKO ENPLEGUA IRIZPIDE IRAUNKORREKIN BAT SUSTATZEA.

3.2.1 ENPLEGU BURTSA

HELBURUAK:

- Herritarrei zuzeneko harrera pertsonalizatua eskaintzea, Enpleguaren Bilaketa Aktiboa (EBA) egiazki garatzeko. Hala lan bila ari direnentzako nola lan-egoera hobetu nahi dutenentzako.
- Etxeko Zerbitzuan ari diren pertsonak babestu, aholkatu eta laguntzea, eta haien lan-baldintzei eta soldatei buruzko argibidea ematea.

- Emakumeen eta gizonen arteko egiazko berdintasuna enpleguaren arloan zabaltzea eta huraxe lortzearen alde lan egitea.

HELMUGAK:

- Astean hiru egunez zuzeneko harrera egitea.
- 3 produktu lantzea, EBAn aholkatzeko.
- Esparru bat erreserbatzea eta, egunero, astelehenetik ostiralera, lan eskaintzak eta informazioa eguneratzea.
- Enpleguaren Bilaketa Aktiboan, gazteriari prestakuntza-ikastaro bat eskaintzea.
- Zailtasun bereziak dituzten herritar sektoreak Gizarteratzeko eta Laneratzeko Tailer bat egitea.
- Burtsen Sarearen urteko bilera batean parte hartzea, Etxeko Zerbitzuan lan-baldintza duinak lortzeko.
- Bateragarritasunaren aldeko Toki Ituna sinatzeko saioen % 50en parte hartzea.
- Laneratzeko zailtasunak dituzten Emakumeentzako Enplegu Tailerra sortzeko proiektu-zirriborro bat diseinatzea.

EPEAK: 2012-2014

ADIERAZLEAK: Zenbat egunez egiten zaion arreta jendeari; zenbat dokumentu egin diren EBArako; zenbat informazio-atal zintzilikatu diren Gazte Berriak Patronatuaren oholean; gazteei zuzendutako EBari buruzko zenbat prestakuntza-ikastaro egin diren; zenbat parte-hartzaile izan diren zailtasun bereziak dituzten herritar sektoreak Gizarteratzeko eta Laneratzeko Tailerrean; zenbat bilera egin dituen kide garen Burtsen Sareak; zenbat bitartekoen bidez egin den Burtsako Sareko entitateek sinatutako lan-baldintzen eta tarifen taularen zabalkundea; parte garen Bateragarritasunaren aldeko Toki Itunaren lan-saioen portzentajea.

LANDUTAKO AALBORG HELBURUAK: 1, 2, 8, 9, 10.

3.3. PROGRAMA. IRAUNKORTASUNA ANTSOAINGO INDUSTRIA- ETA MERKATARITZA-SAREAN SUSTATZEA.

3.3.1 JARDUNBIDE ONAK TOKIKO ENPRESEKIN ETA DENDEKIN

HELBURUAK:

- Jardunbide onak (bateragarritasunean eta kontsumoan) Antsoaingo udalerriko enpresetan eta dendetan zabaltzea.

HELMUGAK:

- Antsoaingo enpresa- eta merkataritza-sarearekin prestakuntza-saio 1 egitea, jardunbide onetan aholkularitza emateko.
- Enpresak eta dendak gonbidatzea Bateragarritasunaren aldeko Toki Itunetan parte har dezaten.
- Enpresetan eta udal establezimenduetan protokoloaren 550 ale banatzea.

EPEAK: 2012-2014

ADIERAZLEAK: Zenbat prestakuntza-saio egin dituzten industriek eta dendek; zenbat enpresek eta dendek parte hartu duten bateragarritasunaren aldeko Toki Itunetan; zenbat protokolo banatu diren udalerrian.

LANDUTAKO AALBORG HELBURUAK: 1, 4, 5, 8, 9 eta 10.

3.4. PROGRAMA. UDAL KUDEAKETA EKONOMIKO GARDENA, ZUZENA ETA SOLIDARIOA EGITEA

3.4.1 EKONOMIA SOLIDARIOA: BANKA ETIKOA

HELBURUAK:

- Banka etikoa herritarren artean sustatzea, iraunkortasunerantz jotzeko beste bide bat baita.
- Udalak Banka Etikoarekin duen konpromisoa garatzea.

HELMUGAK:

- Herritarrak sentsibilizatzeko kanpaina bat egitea.
- Ekarpena % 5 handitzea.

EPEAK: 2012-2014

ADIERAZLEAK: Zenbat sentsibilizazio-kanpaina egin diren; zenbat diru bideratu den.

LANDUTAKO AALBORG HELBURUAK: 1, 2, 8, 9 eta 10.

TOKIKO EKINTZA PLANAREN KUDEAKETA ETA EBALUAZIOA

Plana bera lantzearekin batera proposatu da TEP hau kudeatzeko sistema, dokumentu honek lotura handia baitu pertsonak eta informazioa kudeatzeko egitura posibleekin. Hemen, ordea, ezaugarri orokorrak bildu ditugu, kontuan hartu behar baita aldaketak gerta daitezkeela TEP ezartzeko epean, antolaketaren aldaketetara egokitzeko beharrak eraginda.

Kudeaketa-prozesuak

Ikusten den bezala, **programazioak**, **jarraipenak** eta **ebaluazioak** halako jarraitasun bat osatzen dute, ondoko ziklo honekin bat atzera-elikatzen den jarraitasun bat, hain zuzen: programazioan definitutako ekintzek jarraipenaren xedea markatzen dute, eta jarraipenaren emaitzek ebaluazioa finkatzen dute, eta, ebaluazioan oinarrituta, erabakiak hartzen dira hurrengo Tokiko Ekintza Planaren programaziorako.

Esparru horren baitan, **prestakuntza**, **komunikazioa**, **koordinazioa** eta **partehartzea** elkarren segidako prozesuak dira, ezinbestekoak TEP garatzeko eta lan-

II. TEP
agendalocal21@ansoain.es
948 38 40 48

dinamiken martxa onerako. Beharrezkoa da, beraz, koordinazio-egitura berri egonkorak finkatu eta izendatzea bai arlo politikoan bai teknikoan bai herritarren parte-hartzeari dagokionez.

TEP hau egokiro kudeatzeko behar diren egituren artean, AL21 dago (TEP ezartzeko behar diren alor guztiak koordinatzen baititu, eta planari buruz dagozkion ekintzak eta helburuak garatzen ditu), eta, horrekin batera, Departamentuen arteko Talde bat (udal alorren arteko koordinazioa sustatzeko, TEP ezartze aldera, eta plana hobetzeko, aldatzeko eta malgutzeko irizpideak proposatze aldera), Udal Batzordea (erantzukizun politikoa eta erabakimen estrategikoa dituzten pertsonen osatuta) eta Aholkularitza Kontseilu edo Foro bat (elkartean, taldeen eta bestelako zerbitzuen parte-hartzea sustatzeko, bai eta emakumeen eta gainerako herritarren parte-hartzea sustatzeko ere, TEP nola ezarri proposatze eta laguntze aldera, bai eta haren jarraipenean aritze aldera ere).

Hori guztia, oinarrizko beste hiru prozesurekin koordinatu beharra dagoela kontuan hartuta:

- Udalaren aurrekontuak lantzearekin, aurrekontuan jasoko baita zenbat diru bideratuko den Tokiko Ekintza Plana urtean barna ezartzeko,
- I. Tokiko Ekintza Plana ebaluatzeko prozesuarekin, haren emaitzak funtsezkoak izan baitira dokumentu hau diseinatzerakoan.
- eta, Plana kudeatzeko egiturek egiten dituzten proposamenak biltzeko prozesuarekin.

TEPeren EKINTZAK PROGRAMATZEKO ETA EBALUATZEKO FITXA
Ardatza:
Estrategia-ildoak:
Programa:
HELBURUAK:
HELMUGAK:
Deskribapena:
Departamentu eta pertsona arduraduna(k):
Data:
Aurrekontua:
Irizpide iraunkorrak:
• Ingurumen arloko irizpideak:
• Gizarte arloko irizpideak:

• Irizpide Etikoak:
Erabilitako baliabideak:
Garapena:
• Parte-hartzaileak: Emakumeak Gizonak
• Adina: Emakumeak Gizonak
• Bateragarritasun beharrak:
Adingabeak EmakumeakGizonak
Adin nagusiak EmakumeakGizonak
• Gogobetetze-galdetegia: (halakorik bada, eranskin gisa erantsi)
Balorazioa:
Lorpenak:
Zailtasunak:
Hobekuntza proposamenak:
Beste datu interesgarri batzuk:

I. ERANSKINA

ANTSOAINGO TOKIKO EKINTZA PLANAREN (2008-2010) ESTRATEGIA-ILDOEN BERRIKUSPENAREN LABURPEN TAULA

IKURRA: ■ PROIEKTU TXERTATUAK ■ HASIERAKO PROIEKTUAK

√= Gauzatua √+= Gauzapean etengabea
 √...= Gauzatze bidean Zuria = gauzatu gabe

- 1. Ekipamendu eta zuzkidura publikoen gaitasuna, kudeaketa maila eta jarduera udalerraren demografia-hazkundearen beharretara egokitzea.**

2. Ingurumen-zerbitzuetan kalitatezko eredu iraunkor bat sustatzea, bai eta udal jarduerarekin lotuta duten jarduera eta proiektu guztietan ere.

PROGRAMAK	PROIEKTUAK - EKINTZAK	GAUZAPE N MAILA N.
1.1. Hezkuntza eta kultur zuzkidurak hobetzeko eta handitzeko programak	1. 0-3 urte zikloa ezartzea	√
	2. Haur-Lehen hezkuntzako oinarriko eskola handitzea	√
	3. Haur liburutegia	√
	5. Tokiko kultur ekimenak sustatzea	√+
	6. Biztanleria hazteak dakartzan zuzkidura beharrak aztertzea	√
	7. Orduategia egiazko beharretara egokitzea ?	√...
	1.2. Osasun zerbitzuak hobetzeko programa	1. Osasun etxe bat sortzea
2. Toki publiko bat sortzea aire zabalean ariketak egiteko		√
1.3. Gazteentzako zerbitzuak hobetzeko programa	1. Gazte-elkarteen arteko koordinazioa	√
	2. Denbora libreko jarduerak dinamizatzea	√+
1.4. Iraunkortasunaren zeharkakotasuna udal kudeaketan	1. Iraunkortasunaren dekalogoia	√
	2. Kontratazio Publiko Iraunkorra	√+
	3. Jai iraunkorrak	√+
	4. Lorezaintza iraunkorra	√...
	5. Berdintasun Plana	√
	6. Udal langileak iraunkortasunean prestatzea	√+
	7. Iraunkortasunaren aldeko hezkuntza-proiektua Ezkaba I.P.rekin.	√...
	8. Hiri-kanpamentu iraunkorrak	√+
	9. Iraunkortasunaren aldeko kanpainak eta jardunaldiak (atxikipena, jardunbide onak erakustea).	√+
	10. Bateragarritasuna aztertzea	√
	11. Daten ospakizunetan irizpide iraunkorrak sartzea (martxoak 8, azaroak 25, etab.). II. TEP agenda@al21@ansoain.es	√+
	948 38 40 48 12. Iraunkortasun Jardunaldiak	√+ ₂₃
	13. Genero-indarkeriari buruzko protokoloa	√...
	14. Bateragarritasunaren aldeko itunak	

PROGRAMAK	PROIEKTUAK	GAUZAPEN MAILA
2.1. Energia	1. Udal instalazioetan energia aurrezteko eta eraginkortasunez erabiltzeko programa bat lantzea. <i>Auditoria energetikoa.</i>	√
	2. Energia-iturri berriztagarriak eta bioklimatismoa eraikuntzan sortzea bultzatzea. <i>Biomasa-galdarak Mantentze Nabeen, haur Eskolan eta Musika Eskolan ezartzea. Eguzki-plakak Udal Igerilekuetan.</i>	√+
	3. Kyoto etxeak	√
	4. Isurpen atmosferikoak kontrolatu eta murriztea.	√...
2.2. Ura	1. Udalaren instalazioetan eta zerbitzuetan ura eraginkortasunez erabiltzea. <i>Ura aurrezteko udal plana.</i> a. <i>Ureztapen-sistema zentralizatzea</i> b. <i>Igerilekuetako ura berrerabiltzea</i> c. <i>Ura aurrezteari buruzko auditoria</i> d. <i>Kyoto etxeak</i>	√...
	2. <i>Akuifero naturalak baliatzea</i>	
2.3. Biodibertsitatea	1. Biodibertsitatea esparru eta lorategi publikoetan sustatzea.	√+
	2. <i>Antsoainen eta inguruan bertako landareak landatzea.</i>	√+
2.4. Hondakinak	1. Gai organikoa konpostatzeko-baliatzeko programa. <i>Ezkaba I.P.ko baratzean konpost egitea.</i>	√+
	2. Ingurumen-zerbitzuetan kalitatezko sistema bat ezartzea.	
	3. Etxeko olioak biltzeko esperientzia pilotua Ezkaba I.P.an	√
	4. <i>Esperientzia pilotua. Gune berdeak: hondakinak kaleko paperontzietan bereiztea.</i>	√+
2.5. Zaratak eta atmosfera	1. zaratak eta isurpen atmosferikoak kontrolatzea.	

3. Hiri-mugikortasunerako eredu iraunkor bat garatzea.

PROGRAMAK	PROIEKTUAK	GAUZAPEN MAILA
3.1. Eskualdeko mugikortasuna	1. Iruñerriko garraio publikoaren zerbitzuak hobetzea. Maiztasunak eta ibilbideak luzatzea.	√
	2. Garraio publikoa sustatzea eta jendeak autoa zentzu handiagoz erabil dezan bultzatzea	√+
	3. Eskualdeko sistemarekin bateragarria izanen den bidegorri bat ezartzea	√

II. TEP

agendalocal21@ansoain.es

948 38 40 48

3.2. Barne mugikortasuna	1. Oinezkoen eta txirrindularien mugikortasuna sustatzea	√+
	2. Hiri-eremuak oinezkoentzako bihurtzeko azterlanak egitea	√
	3. Kyoto Etxeak programan parte hartzen duten antsoaindarrei prestakuntza ematea Eraginkortasunez Gidatzen ikas dezaten	√
3.3. Bide segurtasuna	1. Bide segurtasuna hobetzea eta haren aldeko kanpainak egitea. Gidatze eraginkorra eta bide segurtasuna ikastetxean.	√+
	2. Oztopo arkitektonikoak ezabatzeko azterlana eta plana egitea, dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako	√
	3. Obra berrien gauzapena kontrolatzea, oztopo arkitektonikorik ez egiteko	√+
	4. Herri zaharrarekiko lotura – zaldain berri bat sortzea, edo bestela, lurpeko pasabide bat	√
	5. Hiriko altzariak eta seinaleak birkokatzea oinezkoen eta ibilgailuen ikus-eremua hobetzeko (ispiluak garaje-irteeretan; seinale argitsuak). Hizkuntza eta irudi ez-sexistak kontrolatzea bide publikoetako panel eta karteletan	√+
	6. 30 eremua ezartzea	√

4. Herritarrek zerbitzu publikoen kudeaketan parte har dezaten sustatzea

PROGRAMAK	PROIEKTUAK	GAUZAPEN MAILA
4.1. Tokiko Agenda 21i jarraipena ematea	1. AL21 finkatu eta garatzea	√+
	2. Informazio kanpainak, informazioa ethez etxe banatzea eta inkestak egitea	√+
	3. Iraunkortasunean prestakuntza etengabea egitea	√+
	5. AL21 Figura Teknikoa	√+
4.2. Programak: sentsibilizazio kanpainak eta administrazioaren	1. Informazio pertsonalizatua emateko txartel/sistema adimentsu bat sortzea	√

eta herritarren arteko komunikazio-sistemak ezartzea		
	2. Elkarte-sarearen eta administrazioaren arteko komunikazioa koordinatzea	√+
	3. Aldian behin udal jarduerari buruzko planak aurkeztea	√+
	4. AL21eko planak zabaltzea	√+
	5. Udalak informazio-bideak eta boluntarioentzako bideak sortzea premia jakin batzuk asetzeko (liburutegia laguntzea, areto publikoak erabiltzeko aukera, 3. Adinekoei laguntzea, kultura eta kirola sustatzea, ingurumeneko boluntarioratza...)	√+
	6. Plan Komunitario bat sortzea (Barne-Kanpo) Udalaren irudia: Zerbitzu Gutuna sortzea, Udal Kudeaketa gardena.	√+

5.Ezkaba Mendiko natur balioak garatu eta sendotzea

PROGRAMAK	PROIEKTUAK	GAUZAPEN MAILA
5.1. Ezkaba mendia Baliatu eta Babesteko Udalez gaindiko Plan bat landu eta gauzatzea	1. Eskubideak, erantzukizunak eta zereginak argia eta garbi zedarritzea	√...
	2. Jarduketa-protokoloa mendiko larrialdiei aurre egiteko	√
5.2. Birsortze eta lehengoratze naturala	1. Bertako espezieak birsortzea	√+
	2. Parkeko obrak, natur ingurunea errespetatuta	√+
	3. Ezkaba Mendian egindako proiektuak mantentzea eta haien jarraipena egitea.	√+

5.3. Erabilera publikoa	1. Ibilbideak sortzea, bideak eta pasabideak lehengoratzeko	✓
	2. Azienda-erabilera zedarritzea	✓
	3. Ingurumen hezkuntza - ikastetxe publikoarekin eta elkarteekin lankidetzan aritzea jarduketa batzuk gauzatzeko	✓+